

ALDAGAIEN GAINEN OHARRAK

<u>Datu-mota</u>	<u>Deskribapena</u>	<u>Luzera (Byte)</u>	<u>Balioen tartea</u>
Integer	Zenbaki oso motza	2	[-32768, 32767]
Long	Zenbaki oso luzea	4	[-2147483648, 2147483647]
Single	Zenbaki erreal motza	4	[-3.40E+38, 3.40E+38]
Double	Zenbaki erreal luzea	8	[-1.79D+308, 1.79D+308]
String	Karaktere katea	Karaktere adina	64K karaktere edo 2 ³¹ karaktere
Currency	koma ondoren 4 digitu dituen zenbakia	8	[-922337203685477.5808, 922337203685477.5807]
Byte	Karakterea	1	[0, 255]
Boolean	Boolearra	-	True(Egia) edo False(gezurra)
Date	Data eta ordua	4	[1/Urtarrila/100, 31/Aben/9999]
Object	Objektu baten erreferentzia	8	Edozein objektuaren erreferentzia. Esleipena Set aginduaren bide zegiten da.
Variant	Definitu gabeko aldagaia.	Memoria asko okupatzen du	Aurreko edozein datu-mota-ko balioak gorde ditzake

Aldagai bat erabili aurretik, bere izena eta datu-motak erazagutzea komeni da eta baita erabiliko den eremua ere.

OPTION explicit

Aukera honek proiektuko aldagai guztiak erazagutzea behartzen du

Zenbaki osoak

Erazagupena: ***DIM zenbakia1 As Integer, zenbakia2 As Integer***
 Erabilera: ***zenbakia1 = 3*** '(Hasieraketa edo esleipena)
zenbakia2 = 2 * zenbakia1 + 3 '(Esleipena)
PRINT zenbakia1 '(pantailan zenbakia1-en balioa)
PRINT zenbakia1+3 '(pantailan 6 balioa)

Karaktere kateak

Erazagupena: ***DIM izena as String, abizena as String*12, pertsona As String***
 Erabilera: ***izena = "Koldo"***
abizena = "Garmendia"
pertsona = izena & " " + abizena
PRINT pertsona
PRINT MID(pertsona, 1, 5)
PRINT MID(pertsona, 6, 3)

DATU-MOTEN BIHURKETAK**Datu-mota desberdinen arteko eragiketen doitasuna****Arau orokorrak:****1.- Emaita beti hartzailearen doitasunekoa izango da**

```

DIM A As Integer, B As Integer
A = 1378.254216298 / 3.15
B = 17.52
Print A, B

```

Pantailan: 438 18

2.- Egikaritzapena ondorengoengatik baldintzatua dago :**a.- Emailearen doitasuna > hartzailearen doitasuna****Biribilketa bat gertatzen da**

```

A zenbaki oso motza (2) eta 17.52 zenbaki erreal motza
DIM A As Integer
A = 17.52
Print A

```

Pantailan: 18

b.- Emailearen doitasuna < Hartzailearen doitasuna**Zehaztasun txikiena baino txikiagoa izango da hartzailearen balioa**

```

B zenbaki erreal luzea(8) eta 31.821 zenbaki erreal motza (4)
DIM A As Double
A = 31.821! ' (! Erreal motzen atzizkia da)
Print A

```

Pantailan: 31.8209991455078

Beste eragiketa batzuk**Eragiketak doitasun handiena duen eragigaienarekin egiten du**

```

DIM B As Double
Print 7/3 -> 2.3333...33 (14 + .)
B = RND
Picture1.print rnd, B

```

Pantailan: 0,533424 0,705547511577606

DATU-MOTEN BIHURKETARAKO FUNTZIOAK

Cbool	Adierazpen bat balio logiko batean bihurtzen du. True o False .
CByte	Adierazpen bat byte datu-motaren balio batean bihurtzen du.
CCur	Adierazpen bat currency datu-motaren balio batean bihurtzen du.
CDate	Adierazpen bat eguna/ordua datu-motaren balio batean bihurtzen du.
Cdbl	Adierazpen bat double datu-motaren balio batean bihurtzen du.
CInt	Adierazpen bat integer datu-motaren balio batean bihurtzen du.
CLng	Adierazpen bat long datu-motaren balio batean bihurtzen du.
CSng	Adierazpen bat single datu-motaren balio batean bihurtzen du.
CStr	Adierazpen bat string (karaketere-kate) datu-motaren balio batean bihurtzen du.
CVar	Adierazpen bat variant datu-motaren balio batean bihurtzen du.
CVErr	Adierazpen bat errore kodea duen datu-motaren balio batean bihurtzen du.

Ejemplos:

```
Dim zenbakia As Long, aurizkia As String, telefonoa As String
zenbakia = 123456
aurizkia = "945"
telefonoa = aurizkia & "-" & CStr(zenbakia)
```

```
Dim zenbakia As Integer, karaktereak As String
karaktereak = "123456"
zenbakia = CInt(karaktereak)
```

Alfanumerikozko aldagaien egokitzapena zenbakietara

```
Text1.text = Text1.text * 2
```

```
baldin Text1.text = 12A5 (Alfanumerikoa), ERROREA emango du
baldin Text1.text = 1234 (zenbakia), prozesuak onartzen du
```

```
Text1.text = Val(Text1.text) * 2
```

Bi kasuetan zuzena izango litzateke, prozesuaren lehenengo agindua VAL funtzioa izango litzatekeelako eta alfanumerikozko balioentzako moztu egiten duelako, zenbakia ez den lehen karakterea aurkitzen duenean.

```
baldin Text1.text = 12AB5 , Val(Text1.text) = 12 izango da
```

ERAGIKETAK

Eragiketa Matematikoak

=	Esleipena	Zenb=2	Zenb aldagaia 2 izatea egiten du
+	Batuketa	2+1	3
-	Kenketa	8-3	5
/	Zatiketa	8/3	2.66666
*	Biderketa	2*3	6
\	Zatiketa osoaren zatidura	7\2	3
^	Potentzia	2^3	8
Mod	Zatiketa osoaren hondarra	7 Mod 2	1

Eragiketa logikoak

And	Konjuntzioa (Eta)	True And True	True
Or	Disjuntzioa (Edo)	False Or True	True
Not	Ezezko logika (Aurkakoa)	Not True	False
Xor	Baztertze logika	True Xor True	False
Eqv	Berdintzazko logika	False Eqv False	True

Bateratze eragiketak

&	Karaktere kateen bateratzea	"V" & "Basic"	"VBasic"
+	Karaktere kateen bateratzea	"V" + "Basic"	"VBasic"

Eragiketak erlazionalak (Konparaketak)

=	berdin	x=2	True baldin x=2
<	Txikiago	6<3	False
<=	Txikiago edo berdin	5<=18	True
>	Handiago	31>2	False
>=	Handiago edo berdin	8>=8	True
<>	Ezberdin	x<>1	True badin x ez bada 1

ERAGIKETEN LEHENTASUNA

- ^ (Potentzia)
- - (Zeinu aldaketa)
- * /
- \
- MOD (zatiketa osoaren hondarra)
- + -
- =, >, <, <>, >=, <=
- NOT, AND, OR, XOR, EQV, IMP